



Loatzo Egun musikatu eta jendetsua Alegian

PARTAIDETZA ▶ Eskualdeko 300 musikari inguru aritu ziren atzokoan, musikarien egunean

TXINTXARRI EGUNA ▶ Azaro Kulturalaren baitan abesbatzen emanaldia izango da gaur ▶ 6



300 gazte inguruk hartu zuten parte Loatzo Egunean; argazkian, ume batzuk euren instrumentuekin eskuetan. NEREA URBIZU

MANUELA MARTINEZ ▶ ERRUSIAKO UMEA

«20 urte etxetik kanpora pasatu behar izan nuen, adinik onenean»

Gerra Zibilaren amaieran bueltatzea espero zuen, baina ez zen hala izan ▶ 7



Manuela Martinez, Logroñoeko Espolon pasealekuan. JOXEMI SAIZAR

LEITZA ▶

Jon
Rekondo,
Lehen
Mailara

Nafarroako II.
Mailako Txapelketa
irabazi du ▶ 4

TOLOSA ▶



N. URBIZU

Mimoekin,
gorren
egoeraz
hausnartuz

Atzo antzerkia egin zuten Sentsibilizazio Astearen baitan ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Kultur
Asteek jende
ugari
bildu dute

Berastegin eta Adunan izan dira ▶ 4

UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Jon Ander Izagirre eta frontenis txapelketa



diak uztarriari bezala daude uztartuta biak Berrobin orain hamabost urtetik. Orduan, 1992an, Gaztetxe bat sortzeko ahaleginak egiten ari ziren gazte taldearen partaide genuen Jon Ander. Baita ere eskupelota, pala eta fronteniskoa. Antolatzaile, mendizale, kultur gile eta kirolari aparta zen. Amets eta asmo onez beteriko mutila.

Aurten hamar urte bete dira joan zitzaigula gure eguneroko bizitzatik. Danbateko latza jaso genuen 1996ko urtarriaren erdialdean. Istripu madarikatu batek eraman zuen betirako.

Uzturretik izeneko zutabe honetara dakarkizuet, orduko berri latz hura. Mina gutxitzeko eta sendatzen joateko, oroitzenak, gogorapenak, omenaldiak eta ekintzak erabili eta burutzen ditugu. Hauek denekin, eskeletan eta olerkietan irakurtzen dugun «inoiz ez zaitugu ahaztuko» esaldia nolabait egia bihurtzen ahalegintzen gara. Gogoratuz eta ekinaz, oraindik ere geure artean diharduela dirudigu. Horrelakoak gara eta horrela kontsolatzen gara. Beharrezko eta onuragarriko eginkizuna. Hamarkada bat igaro bada ere, bakoitzaren bihotzeko ordenagailuko txokotxo goxo batean dago sartuta Jon Ander. Bera ez da bizi, baina badago.

Horregaitik gaurko idatzi hau berezi xamarra datorkizue. Berri emaila na-

torkizue eta ez aztertzaile. Jon Anderren omenez eta oroimenez atzo bertan hasi zen XV. Frontenis Txapelketa bikaina, hain zuzen. Hil baino bost urte lehenago berak, beste gazte batzuekin sortu zuen, gaur egun Gipuzkoa mailan ezagunena dugun Txapelketa. Hasieran Berrobi bertako 10 bikoteak soilik parte hartu zuten. Baina urtez urte banakako eta binakako bikoteak gehituz joan dira: aurten mutiletan 70 bikote binakakoan eta 64 banakakoan. Nesketan 10. Hiru asteburuetan goizetik gauerarte partidak bata bestearen atzean ikusteko eta goxatzeko aukera ederra izango duzue. Abenduaren 7an hiru motatako finalak jokatu dituzte.

Zazpi egun osotan gure herritxoa jai giroan murgiltzen da. Jokalarien eta

ikusleen joan-etorriak bizitasuna ematen diote herritxo honi. Aspaldian herriko jaiak Sanandresetan izaten ziren baina abuztura aldatu zituzten. Orain, gazte multzo jatorraren lanari eta Txapelketari esker, negu ataria berriro ere festa bihurtu zaigu. Bejondeizuela, gazteok!

Igandetan zutabe honetan idazten duten batzuk parte hartzen dute: bat, gizakume ez den bertsolaria iazko txapelduna dugu. Aurten ere saiatuko da ziurrenik txapel hori jazten. Irabazi edo ez, azken eguneko sari banaketa hasi baino lehentxoago familiari eskaintzen zaion lore sortan doinu ederreko bertso batzuk korapilatu eta dizdiratu ditzala. Bihotza kilikatuz bukaera ederra izango da denontzat, benetan.

LEHEN ETA ORAIN ▶



Gain Berri etxea eta ikastetxea San Blas

Erredakzioa ▶ Tolosako zonaldea baten inguruan atzera begira egin nahi izan du HITZAK oraingoan. Ildefonso Kalparsorok —Elduako paperfabrikako nagusia— 1922an landa lur batzuk erosi zituen San Blas, Iurreamendiren aurrean eta arkitektura lokaleko etxe bat eraiki zuen hurrengo urtean, Gain Berri izena emanez. Kapera txiki bat ere bazuen. Nagusia 1950ean hil zen bertan eta bere semeak 1955ean moja kongregazio bati saldu zion etxea. Izaskungo

Andra Mari ikastetxea izan da bertan —Gainberri ikastetxea izenarekin ezagutu zen urtean Tolosan—, duela urte gutxi Hirukide ikastetxea osatu zuena Eskolapioen eta Jesusen Alaben ikastetxeekin batera. Eskuinean argazki zaharra ikusi daiteke eta ezkerrean, berri, egun duen itxura, Iurreamendi egoitzatik ikusita. Errepidea igarotzen da orain albotik eta Guardia Zibilaren basea ere alboan ezarri zuten duela urte batzuk. ¹JOSE RAMON CALPARSORO.

UN PILOTO ESPAÑOL EN LA LEGION CONDOR¹ LIBURJA / N. LATABURU.

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitetz harpidedun!

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, II • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 04 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

Altzon kutzazaina zertarako? Ura ordaintzeko

Eguna lanean pasa ondoren, afaldu eta alabak oheratu eta gero, lehen atsedendia bezala sentituz, eseri eta etxera iritsitako paperak arakatzeari ekin nion.

Nire eskuetara iritsi zen lehenengo papera, Agenda 21a dela-eta Altzoko Udalak, gauzak hobeto zehazteko, sasi Udalak, bidalitakoa. Herritarren iritzia jakin nahi omen dute gai garrantzitsuen aurrean. Garai ederrean!!! Pentsatu nuen. Mila trikimailu egin ondoren, iritzia galdetu. Burura etorri zitzaidan adibidez, iritzirik galdetu gabe, trikimailu ugari eginez, legeak eta araudiak urratuz onartu eta babes-tutela Altzo Azpiko zerrategia. Zergatik ez ote digute orduan herritarroi iritzia galdetu? Zergatik ez gintuzten herritarrak gonbidatu Juan Jose Ibarretxe lehendakaria herrira etorri zenean? Isilpean eta ezkutuan egiten al dira

gauzak herri honetan? Hori baino gizalege gehiago beharko zenukete.

Agenda 21ekoa utzi eta beste gutun bat iritsi zen nire eskuetara. Orain artean sekula ikusi gabekoa, koloredun logo eta guzti. Jakinminez ireki nuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren gutuna. Erretolika luzea eta amaieran arrazoi bortitza: 40, 37 euro.

Kontxo! pentsatu nuen. Orain arte ordaintzen nuenaren bi-koitza, alajaina!

Hurrengo egunean, herriko plazara hurbildu nintzenean, bero-bero sumatu nuen jendea.

Ez dakit zergatik, baina uztaileko bero sargorietan gertatzen denaren antzeko zerbait nabaritu nuen. Sargori egun horietan sarri hitz egiten dugu esanez, gure etxe aurrean 34º markatu din termometroak, gurean eguzkitan 40º iritsi zutan... Ni itzalean gorde nitinan!

Neguaeren atarian egonagatik, antzeko komentariak entzun nituen lehengoan plazan. Aldaketa bakarra, graduak izan ordez, euroak aipatzen zirela. Gurera 40,37 euro. Jo! Gurera 45,10 euro. Gure aldame-neko baserritarrari...500 euroko faktura etorri omen zaion. Herritarrak aztoratuta eta haserre sentitu nituen eta itzala falta euro zaparradatik gordezke.

Gertakizunak buruan bueltaka nituela, derrepentean

pentsatu nuen Mª Pilarrek eta bere monagiloek gauzak ondo pentsatzen dituztela.

Aurreko egun batean irakurri genuen *Diario Vasco* egunkarian albiste garrantzitsu moduan, Altzon Kutzazaina jarri behar zutela eta begira gauzak zer diren. Arrazoi dute, altzotarrak gertu eta eskura beharko dugu hemendik aurrera Kutzazaina... besteak beste uraren fakturari aurre egiteko.

Lehendik ere hamaika «aha-legendin» egin digutenez Altzoko herriaren alde...hara beste ahalegendin bikain bat.

Zein adibide ederra herrialde guztietako langileentzat! Sozialismoa posible ez dela eta langile klasea indar iraultzailea ez dela esaten dutenentzat erantzun bikaina da Mexikon ireki den prozesu iraultzailea. Gonbidapena lutzatzen dizuegu Rodrigo Cruzen hitzaldi-dieta. Animatu!! Defenda dezagun Mexikoko zapalduen borroka!!

LURDES MURUA
GOROSTI ▶ ALTZOLANEAN
BIZI TALDEKOA

Mexiko eta Oaxaka iraultzan

Iritsi da Mexikoko eztanda soziala. Hauteskunde iruzurraren aurkako mobilizazioekin Mexikoko prozesu iraultzailearen hasiera etorri da. Mexiko

astintzen ari diren gertakizunek inflexio puntu bat markatu dute herrialdearen historian. Ez da krisi konstituzional bat edo hauteskunde bitxi batzuen legitimitate kontua soilik. Aldi berean, Mexikoko krisi politiko Latinoamerikako krisi kapitalistaren irudikapena da, munduko potentzia indartsuenaren ondoan gainera. Egoera hau ikusita, interesgarriak izango dira datozen egunetan Euskal Herria Sozialista aldi-zakariak antolatuta Euskal Herrian Rodrigo Cruz marxista mexikarrak, Oaxakan egon denak, emango dituen hitzaldiak. Azaroaren 23an, ostegunean, Leioako Kampuseko Zientzia eta Teknologia fakultatean, 1P13 gelan, 12:00tan eta Tolosako kultur etxeko 2. solairuan, 19:30tan. Azaroaren 24ean, ostiralean, Tolosako Orixe Institutuan 11:00tan eta Iruñan Iruñia-Berriaren sedean 19:00tan.

Amerikako egoerari begirada bat emanda ikusi daiteke inoiz ez duela izan hain itxura dardarkaririk. Langileen eta nekazarien mugimenduak porrot latzak ezagutu ditu kontinente honetan, kontrairaultza burgesak diktadura militarrek erabili ditu belaunaldi oso bateko borrokalariak erahiltzeko. Urteetan pribatizazio masibok eta milaka lanposturen suntsiketa eskaini ditu burgesiak. Bitartean, langile klasearen zuzendaritza erreformistaren eta estalinistaren kapitulazio ideo-

logikoa eman da. Baina hala ere, kapitalismoaren eta inperialismoaren garaipena ematen zuena bere aurkakoan bihurtu da. Kontinenteko masa zapalduak ukabilkada bat eman dute mahai gainean, historiantzuten paper protagonista berretsiz.

Merkatu askearen mugetan soberania nazionala lortzea posible denaren ideia faltsua agerian geratu da berritoren eta oligarkia nazionala desautorizatuta geratu da beste behin. Venezuelako, Boliviako, Ekuadorko eta Argentinako prozesu iraultzaileak eta orain Mexikoko krisi iraultzaileak erakusten dute beharrezkoa dela lehenbailehen kontinentearentzat alternatiba sozialista eta internazionalista altxatzea. Iraultza proletario eta sozialista da bide bakarria kapitalismo latinoamerikararen krisia konpontzeko. Ez dago beste biderik, beste alternatibarik masa zapalduentzat. Mexikoko goraldi iraultzaileak iraultza latinoamerikarrek etapa berri eta dramatiko bat markatzen du. Munduko estatu inperialista boteretsuenaren ate aurrean, masak ekintzara pasatu dira beren borrokarako grina azalduz eta kapitalismoarentzat eta inperialismoarentzat mehatxu bihurtuz.

IBON ARTOLA ETA
JESUS MARI ARANZEGI ▶
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
ALDIZKARIKO KIDEAK

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zer iritzi duzu Leidor berriari buruz?

Akustika ez dela hobetu esaten duten horiek zer dira, «yo traje la acustica a Euskadi» esango luketeen horietakoa? Horrelako jarrerak errez aurreikusitu daiteke. Arazorik ez.

OSKAR ▶

Hobetu den bakarra eserlekuak. Akustikak lehen bezain lehorra izaten jarraitzen du. Hainbesteko inbertsioa eta kaka!!!!

MUSIKAZALE ▶

Ez da logikoa: dirutza inbertitu eta akustika ona ez izatea Leidorrek. Gainera, dirudienez ez da inor larritu honen inguruan. Alkateak berak esan duenez, «azken ukitua» falta omen zaio.

Ez al zegoen ba amaituta?... ai, ai, ai...

AINARA ▶

Udalak inbertsio handia egin du eta ez da gutxiorako: herriko kultur gunerik garrantzitsuenak zuen egoera nahiko penagarri baitzen. Orain, bost haizeetara zabaldu dute Leidor eraberrituaren egoera ezin hobe dela eta kultur ekitaldiak hartzeko prest dagoela. Haatik,

lehen ekitaldi potentia heldu da: abesbatzak. Eta lehen honetan, kale! akustikak zeresan handia eman du, entzuleen artean eta baita abeslarien artean ere. Ez dakit zein den soluzioa baina behin gauzak egiten hasita, ondo egin.

▶

Egokia iruditzen zait. Itxura modernoa du eta erosoa da.

TOLOSAR BAT ▶



Abel Barriola pilotaria ikusten al duzu lau t'erdiko txapeldun?



Bai 87% • Ez 13%



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.info

LEITZA ▶

Jon Rekondok
Lehen Mailara
igotzea lortu
du Donezteben

ERREDAKZIOA

Herenegun, Nafarroako II. Mailako Txapelketako finalean jardun zuten lau aizkolarietan onena izan zen Leitzako Jon Rekondo, eta txapelata jantzi zuen. Beraz, heldu den sasoiari Lehen Mailan ariko da gaztea. Ostiralean 18 minutu behar izan zituen bost egurrak ebakitzeko. Ondoren, Mingotia, Amillano eta Juan Telletxea sailkatu ziren.

16 urterekin hasi zen aikora munduan, eta denbora gutxian Lehenengo Mailara igotzea lortu du. Hala, Doneztebeke ferietako herri kirola jaialdiaren barruan jokatu zen finalean faborito ez bazen ere, bera izan zen irabazlea diferentzia nabarmenarekin gainera. Hemendik aurrera, puntako aizkolariakin lehiatuko da plazetan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

KULTUR ASTEAK ▶

Kultur ekitaldi ugari
asteburuan zehar
Tolosaldeko herritan

Berastegik eta Adunak gaur emango diote amaiera Kultur Asteari; Ikaztegieta aldiz, gaur hasiko dira krosarekin



Berastegiko Kultur Astearen baitan, jende ugari bildu zen musean joatzeko. E. EZEIZA



Korri, Xalto eta Brinko pailazoaren emanaldiarekin barre ugari egin zuten umeek atzo Adunan. E. EZEIZA

TOLOSA ▶ GIZARTEA



ESTI EZEIZA

Ekitaldiz betetako astearen ondoren, gaur emango diote amaiera adunarrek eta berastegiarrek Kultur Asteari.

Atzokoan, mus txapelketa herriko azkarra izan zen Berastegin, hemen adin guztieta-ko herritarrek lehiatu ziren. Adunan gaztetxoak izan ziren protagonista, arratsaldean, frontoia jendez gainetza izan zen Korri, Xalto eta Brinko pailazoaren emanaldia ikusteko.

Ikaztegieta ere

Gaur ekingo diote Ikaztegieta-ko Kultur Asteari. Hasteko, 11:00etan herri krosa izango dute. Bihar berri, 19:30ean, lurbirutegian, hitzaldia izango da, Elhuyar Fundazioak antolatuta, *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* izenburupean. Etzi, *Auñamendi. Euskal Herriaren bizkarrezurra* diaporama eskainiko du Gema Arrugaetak. Hau ere 19:30ean izango da, liburutegian. Asteazkenean ere ikusentzuneke proiektzioa izango dute. Oraingoan, Dokumanian saritutako Juan Bidegainen *Rockall*-ez gozatu ahal izango da. Emanaldi hau ere, aurrekoak bezala, liburutegian izango da, 19:30ean. Musika emanaldiak ere ez dira faltako aste honetan Ikaztegieta. Ostegunean, iluntzeko zortzietan, gimnasioan, Igelaren banda izango da entzungai. Haurtsoek ere izango dute zer ikusi, ostiralean, 17:00etan Joseba Ramirezek ipuin bat kontatuko du liburutegian. Eta Kultur Asteari amaiera emateko, haur antzerkia izango da larunbatean liburutegian. Gorringo taldeak antzetzuta, *Asto bat hipodromoan* lanarekin barre egin ahal izango dute gaztetxoek 17:00etatik aurrera.

Gorren
egoeraz
hausnartuz

E. Ezeiza ▶ Gorren Sentsibilizazio Astearen baitan, ekitaldi artistiko ezberdinak izan ziren atzo, hala nola, dantza, poesia, txotxongiloak, mimoa... Gainditzen, Tolosaldea eta Goierriko pertsona gorren elkartearen esanetan, «persona gorrek urte asko daramatzate bazterte egoera larrian». Hala, ekitaldi hauekin gizarte gorren egoeraz ohartzea eta sentsibilizazioa nahi dute. N. URBIZU

AMASA ▶ SAN MARTIN JAIAK

Azken jaiak ere... azkenekotan

Gaur amaituko dituzte sanmartinak, Martina Sorgina agurtuz; atzokoan ere izan zuten zer gozatua auzokideek

ERREDAKZIOA

Suziri «gorabeheratsu» batek eman zion hasiera atzokoan Amasako sanmartinen egitarauari. Eguzkiak ere bertan egon nahi bazuen ere haizeak gogor jotzen zuen eguerdi partean Amasako zelaietan. Lau segalari beroketa lanetan zeuden ordurako sega eta lokotz apustuari aurre egiteko prest. Batetik, Andoni Zuriarrain eta Jokin Etxeberria herritarrek eta, bestetik, *Urki* eta Arkaitz Arteaga. Jendea ere gogotsu azaldu zen zelaietara apustu interesgarriekin gozatzeko asmoz. Bi bikoteak nor baino nor aritu ziren lehian, bai eta txantxa eta txantxa artean ere. Amaieran, *Urki* eta Arteaga suertatu ziren garaile, lagun arteko apustuan.

Ondoren, txekor jaterako garaia heldu zen, herri bazkariarekin. Jaiak, nola ez, arratsaldean jarraitu zuten, argazki lehiaketako argazkien proiektzioa eta sari banaketa burutu baitzuten, Kultur Etxean. Eta gau partean musikak girotu zuen Amasa, Etxabe anaien eta Xabi dantzalekuaren eskutik.

Eta ona den guztiak omen du bukaera; ezin hau salpuespena izan. Hala, gaur emango diete amaiera aurtengo sanmartinei.



Etxeberria, lokotz biltzen. N. L.



Urki segalari orendaindarrak apustuan, atzean Andoni Zuriarrain amasarra duela. N. LATABURU

Bi asteburuz luzatu dute festa bizilagunek eta gustura daude «parte-hartzearekin». Herria txikia izanagatik, jendea hurbiltzen da bertara eta amasarrak ere ez dute kale egiten. Parrandazaleok arazoak izango dituzte mendiatioan parte hartzeko, 09:00etatik aurrera. Amaitzeko, aurten estreinakoz herria bisitatu duen Martina Sorginari agur esango diote. Aurtengoak ikusita ziur datoren urtean ere herrira bueltatzeko irrikitan izango dela...

EGITARAUA ▶

Honakoa da antolatzaileek azken egunerako prestatu duten egitaraua:

GAUR

11:00. Amasako XIV. mendiatioa
18:00. XVII. Inxorrenen aldatzea. Eta Martina Sorginari agur.

Alkizako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzarrek 2006ko urriaren 31ean hartutako akordioaren arabera Alkizako Udalaren jabetzakoa den behe solairuko lokal bat haurren eskola gisa egokitzeko lehiaketa deialdia argitaratu ematen da. (GAO 2006-11-16)
Deialdia arautzen duen baldintza administratibo partikularren plegua Alkizako Udaltxan eskuratu daiteke.
Lizitazioaren hasierako prezioa: 72.363,61 euroakoa da (BEZ barne), beharrentz hobetu daitekeena.
Eskeintzak aurkezteko azkeneko eguna: 2006ko abenduaren 12a.
Alkizan, 2006ko azaroaren 16an.
Alkatea.



IBARRA: 3 logela. Berogailua. Egoera onean. 36.000.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.
TOLOSA: Zumalakarregi. 90 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Sukaldea jarrita. 65.000.000 pzta.
VILLABONA: Eraikuntza berrikoa. 51.000.000 pzta.
VILLABONA: Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara badu. 49.000.000 pzta.
VILLABONA: Berogailua eta igogailua ditu. 44.000.000 pzta.
VILLABONA: 3 logela. Erdi eraberritua. 41.200.000 pzta.
VILLABONA: Etxebizitza eraberritua. Altzariz hornitua. 40.000.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Apartamentu xarmanta erabat berritua. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Erabat berriutako etxebizitza. Berogailua. Bikaina. 35.000.000 pzta.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trasteleku. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pzta.

Errota 3 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardoa

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera.

- Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira..



3 BOTILAKO KUTXA

39 €



6 BOTILAKO KUTXA

78 €

ESKAERA EPEA:
azaroaren 27a arte
ESKAERAK EGITEKO:
943 30 43 45

BIDALKETA GASTURIK GABE



Poliki-poliki eta modu naturalean egindako ardoa, haritzik onena erabiltza; azken batean, benetako chateau ardoa, zapore fresko eta iraunkorrekoa, bouquet handi eta oparokoa.

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

AZOKA ▶

Eskaintza berdinekin eguna lasaia, bai jendez ere

Perretxiko mota asko, ehizan usoa eta eperra errege, barazki eskaintza zabalarekin

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen. Eskaintza ez zen gehiegi aldatu joan den astearekin konparatuz, eta prezioak ere bere horretan mantendu ziren.

Perretxiko eskaintza oraindik oso zabala da, eta atzo onddo, ziza hori, nikalo eta mortxela dezente saldu ziren. Datozen asteetarako dirudienez, zerrendak behera egingo du, baina oraindik produktu asko dago. Ehiza zerrendan usoa eta eperrak izan ziren salduenak.

Barazki zerrenda ere zabala izan zen. Azak, azaloreak, romanescu aza, brokolia, bruselaza, porruk, azenarioak edo eta gardua, besteen artean.

Berdura plazan esan zigutenez, hemendik bi edo hiru astera, pazko loreekin hasiko dira, eta hauekin, gabonetako apaingarri guztiekin.

AZOKA ▶

Prezioa	merk.	gares.
Berdura plaza		
Gerbera	12,00	-
Xarbot	4,00	6,00
Antirinoa	1,00	-
Erromeroa	4,00	6,00

Bertako produktuak		
Urta	2,00	3,00
Lekak	2,50	3,50
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Ardi gazta	14,00	18,00
Txikoria	1,00	1,25

Produktu ekologikoak		
Inbaurra	4,00	6,00
Baraturria	1,60	6,00
Azukrea	3,35	-
Kogoiola	1,00	-

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko llantak. Tebuarekin. 14.000 euro. Interesatuek deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

ALEGIA ▶ KULTURA

NEREA URBIZU

Atzoko eguna musikatua izan zen Alegian. Edozein musika tresna entzun zitekeen kaleetan zehar, kalejira erraldoia egin baitzuten Loatzo musika eskolako ikasle ia guztiek. Denora 300 bat ume eta gazte elkartu ziren. Xexili Eguna, musikarien eguna, alegia, hurbil dugula, ezin aproposago ospatu zuten.

Loatzoko zapi koloredunak zeramatzaten ikasleek jantzita, musikariak zeintzuk ziren bereizteko. Haiekin batera jende asko ibili zen kalejiran. Hainbat parketan geldituz joan ziren, kantak eta baita Alegiko dantzariak dantzak eskaintzeko ere. Oraindik txikiak direnek eta musika tresnarik jotzen ez zutenek haien ahotsa erabili zuten, musika tresnekin batera abesteko.

Begoña Azepeitiari omenaldi xumea egin zioten kalejira bukatu zenean, merezitako lanarengatik: Alegiko ikastolan hasieratik eta garai zailtan bera aritu zen bakar bakarrik klaseak ematen, euskaraz, noski. Jada jubilatua egin da eta ondorioz plazan omenalditxo egin zioten: Alegiko dantza taldeak *Agurra* dantzatzen zion, dantzari arkupeetatik igaro ondoren. Hector Kolinas zinegotziak landare bat eman zion eta Ana Zabala eskolako gurasoen komisioko kideak, detaile bat eman zion. Alegiko Bertso eskolako Beñat Garmendiak eta Imanol Irazustabarrenak bertso bana eskaini zizkioten. Jende asko hurbildu zen omenaldi honetara.

Gaur, Txintxarri Eguna

Azaro Kulturalaren baitan Txintxarri Eguna antolatu dute, aurreko urtean bezala. Aurtengo berezitasuna Lukas Guridi apaizaren obrak entzungai izango direla da, besteen artean. Herrian hainbat urtez apaiz izan zen, eta lehenagoko gizonen korua zuzendu zuen. Horrez gain, asko konposatu zuen Alegian bizi izan zen garaian.

Hura jaio zela 100 urte bete ditu aurtun, eta haren omenez


TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Gure webgunean eskualdeko herri eta txoko ezberdinetako paraje eta irudiak ikusi ahal izango dituzu. Horrez gain, aurreko inauterietako, festetako, edo lehiaketetako argazkiak daude ikusgai. Saka ezazu Irudietan sailan eta momentuan ikusiko dituzu.

Loatzo Egun jendetsu eta musikatua igaro dute

300 musikari inguruk ospatu zuten musikarien eguna, musika eginez



Loatzo egunean Loatzo musika eskolako ikasleak bildu ziren. N. URBIZU



Begoña Azepeitiari plazan egin zioten omenaldia. Bertan bertsoak, opariak eta dantzak jaso zituen. N. URBIZU

AZARO KULTURALA ▶

Hauek dira Alegian hurrengo egunetan izango diren ekitaldiak.

GAUR, TXINTXARRI EGUNA

11:15. Mezan Txintxarri abesbatzak abestuko du.
▶ Ondoren kontzertua, baita Txintxarri Txikik ere.

HILAK 22, ASTEAZKENA

19:30. Hitzaldia Ibon Azpilikuetaekin: *Euskal Herriko perretxiko jangarri eta pozoitsuak.*

HILAK 23, OSTEGUNA

18:00. Maite Franco ipuin kontalaria Udal liburutegian.

HILAK 24, OSTIRALA

22:30. Antzerkia: *Erreleboa*, Txalo taldearekin.

HILAK 27, ASTELEHENA

19:30. Argazki erakusketa: David Aprearen *Idi probak*, abenduaren 5era arte ikusgai, Kultur Etxean.

HILAK 29, ASTEAZKENA

19:30. Hitzaldia: *Alegiari buruz kontu kontari*, Joxe Gastesirekin.

kantatuko dute gaur Txintxarri abesbatzak eta Txintxarri Txikik. Txintxarri abesbatzako eta elkarte bazkide hildakoen omenezko meza eta kontzertua izango da gaurkoa, 12:15ean.

Ondoren bazkaltzera joango dira Txintxarri elkartera. Txintxarri Abesbatza Kultur Abesbatzak eskerrak eman nahi dizkio Txintxarri elkarteari bazkaria antolatzeko azaldu duen jarreragatik eta ahaleginagatik.

MANUELA MARTINEZ ▶ ERRUSIAKO UMEA

«20 urte etxetik kanpora pasatu behar izan nuen, adinik onenean»

Errusiara bidali zituzten haurretako bat da; gerraren amaieran itzultzea espero zuten, baina ez zen hala izan

JOXEMI SAIZAR

Aita alegiarra eta ama erroixarra zituela, 1926an jaio zen Tolosan Manuela Martinez del Castillo. Emakume bizia, urduria, sentikorra, Gerra Zibilak bere bizitzan izan duen eragina azaldu dio HITZARI. Azken 24 urteotan Logroño (Espainia) bizi da, osasunagatik, eta han izan da elkarrizketa.

Zer gogoratzen duzu gerraren hasieraz?

10 urterekin harrapatu ninduen. Tolosan oso gertaera gutxi izan zen. Donostiako Herrean ahizpa zuen amak, tarteka hara joaten ginen eta karlistak Tolosan sartu baino egun batzuk lehenago, aitak abisatuta, hara joan ginen ama eta anai-arrebak. Sekulakoak entzuten ziren nazionalengatik: bularrak moztzen zituztela eta. Jarritakoarekin abiatu ginen. Herrean bai, ikusi genuen hegazkin bat oso baju hegan. Bonba botata zuen inguruan. Gu korri-

ka iheska atera ginen. Han *Cervera* untzia tiroka ari zen Donostia aldera. Handik izeba eta lehengusuekin Bilbora joan ginen lagun arrantzale batzuen lantxa batean, jendez beteta, gauez, ez ikusteko.

Aita non zegoen?

Frontean. Bilbon denboraldi bat egin genuen eta etortzen zen. Gobernuak banatzen zituen etxeak errefuxiatuentzat. Egun osoa kalean pasatzen genuen. Jateko gauza finkorik ez genuen, jangela publikoak zeuden doan, baina gutxitan joaten ginen ez zutelako ondo ematen. Gosea pasatu izanaz ez naiz gogoratzen.

Nola sortu zen Errusiara joan behar izatea?

Gobernu errepublikazaleak haur errefuxiatuak atzerrira ateratzeko aukera eskaini zuen. Amak Frantziara joateko eman zuen gure izena, baina kupoa bukatu zen. Gero Errusiara joateko eman zuen gure izena. Gerraren amaieran itzultzea zen denon asmoa, baina ez zen hala gertatu. 1937ko udan atera ginen, ni 11 urterekin eta Hipolito anaia 8 urterekin. Santurtzira eraman gintuzten trenez —obusak gertu pasatzen ziren, makurtu behar izan genuen— eta handik itsasuntziz Frantziara. Bodegetan pilotuta joan ginen, asko negarrez. Ni ez, beti ausarta izan naiz. Ama Bilbon gelditu zen.

Nora iritsi zineten?

Leningradora. Egun batzuetako bidaia izan zen, hiruzpalau egun edo. Hezitzaile gazte batzuk genituen gu zaintzeko. 2.500 haur edo izan ginen, denak euskaldunak, ezkerrekoak edo errepublikazaleak edo abertzaleak. Tartean tolosarrak bazeudela gero jakin nuen. Ruiz de Egilaz zuten abizena. Anaia txikia Errusian dago oraindik. Familiari kartak idazten dizkionean, ilobak edo nik itzultzen dizkiogu errusieratik. Leningradon ilea erabat moztu, dutxatu, arropa aldatu



Manuela Martinez Logroñoeko Espolon pasealekuan. JOXEMI SAIZAR

eta Obninskoye-ra eraman gintuzten, Moskutik 100 bat kilometrotara. Ume etxe onena gu-rea zela esaten zuten. 500 bat haur ginen. Errusiera ikasi genuen hasieratik, ia konturatu gabe, gramatika eta literatura. Badakizu, umeak ginen eta... Gurekin joandako hezitzaileak eta bertako irakasleak genituen, oso jende ona.

Noiz arte egon zineten bertan?

Batzuk beste etxe batera eraman gintuzten, tartean anaia eta biok, hazitzen ari ginen eta lekurik ez zegoen ia. Volga ibaiaren ertzean izan ginen, Kuybishev-en. Aberatsen txalata izandakoa zen, lorategi eta guzti. Volgan igeri eta arraun egiten genuen. Baina Munduko II. Gerra hasi zenean, 1941ean, atzera lehengo lekura itzuli ginen eta alemanak sartu arte izan ginen bertan. Bonbardaketak zeudenean sirena jo eta basora atera behar izaten genuen manta batekin ezkutatzera. Saratov-en ere izan nintzen. Orduan banandu nintzen anaiarekin. Beste batzuk berri, Siberiara eraman zituzten. Herri txiki batean izan ginen, alemaniarrek *dacha* —egurrezko etxe txikiak— batzuetan bizi ziren. Hura ez zegoen hain ondo: argirik ez zegoen, oherik ez zegoen, bankuetan egiten genuen lo, komonik ez, jateko gutxi, hotz handia... Garia mas-

tekatuz entretentzen ginen, txikle modura.

Noiz elkartu zineten berriro anai-arrebak?

1945ean gerra bukatu zenean, Moskun. Aurrena Saratovetik hegoaldera eraman gintuzten, frontetik aldentzen, Tbilisiraino, Kaukasora, eta handik Moskura eraman gintuzten ikasten jarraitzera, baina lanean jarritu behar izan genuen. Jimki-ra eraman gintuzten, Moskutik gertu, lanera. Handik Moskura, institutu tekniko batera, espezialitate bat ikastera. Katean lan egiten zuten fabrika asko zeuden: arropa, sonbreroak, jantzi militarrik... Hamar bat urte egin nituen Moskun, lanean eta ikasten.

Nola lortu zenuten itzulera?

Gurutze Gorriaren bidez egin genuen dena. Hirugarren espedizioan etorri nintzen. Anaia hilabete lehenago, hango emaztea eta alabarekin. Geroago beste batzuk etorri ziren, gerrarako materiala egiten zuten fabriketako langileak eta. Agurra hungigarrria izan zen, fakultate osoa joan zen, denak negarrez. Ni beti errusiarren artean ibiltzen nintzen, espainiarrekin baino gehiago. Moskutik Itsaso Beltzeraino trenez joan ginen eta handik itsasuntziz Valentziaraino. Valentziatik etxera kamioneta baten etorri nintzen. Ni 1956 urriaren 25ean etorri nintzen Tolosara.

Goizeko bostetan edo utzi ninduten Gorritiko zubian. Ama ez nuen molestatu nahi eta fundizio batera joan nintzen zer gertatzen zitzaidan azaltzera. Gainera ez nekien etxe aldatu zirenik. Topaketa hotza izan zen amarekin. Gurasoekin harreman oso gutxi izan genuen. Urte asko ezer jakin gabe egon ginen. Gero, nirekin zegoen lagun bati esker, Ingalaterran errefuxiatuta zegoen mutil baten bidez amarekin gutunak idazten hasi nintzen. Aita ez nuen gehiago ikusi, 1943an hil zen gaixo, ni itzuli aurretik.

Nolako izan zen gerra ondorena zure gurasoentzat?

Beste etxe bat bilatu behar izan zuten Errementari kalean, beste kendu egin zietelako gerran. Aita La Esperanza paper-fabrikara itzuli zen. Hil zenean ama sartu zen. Bizitza osoan asko sufritu zuen amak. Izaera itxi samarrekoa zen, beti mezetara joaten zen. 1969an hil zen.

Eta zu itzuli zinetean, arazorik izan al zenuen?

Ez, hilabete baino lehen hasi nintzen lanean. Llanosen lan egin nuen, Arramelen zegoen tornillo fabrika. Hura itxi zenean paperfabrika batzuetara joateko aukera izan nuen, orduan erraza zen lana bilatzea eta Amarozerara joan nintzen. Han egon nintzen jubilatuta arte. Anaia berriz, ez zuen lana aurkitu eta Errusiara itzuli zen hilabete batzuetarako, baina gero berriz Tolosara etorri zen eta Berastegin bizi da. Errusian taxista eta unibertsitateko irakasle baten txoferra izan zen eta hemen kamoilaria.

Errusia gogoan al duzu?

Bai. Ikasketa politikak egin nituen, ibilaldiak egin genituen. Asko ezagutzen dut Errusia. Joan izan naiz geroztik, kultur bidaian Logroño-ko jendearrekin. Errusiera mantendu dut, baina ohitura galtzen ari naiz.

Zein oroimen duzu gerraz?

Asko, baina batzuetan ez datozkit burura. Dena kontatu nahi eta ezin. Hunkitu egiten naiz. Ez dut asko hitz egiten gerraz. Bilbon geundela, egun osoa kalean ibili behar izaten genuen eta beti babesleku batetik gertu, sirenak entzuten genituenaroko. Hildakorik ez dut ikusi, ez dut gogoan behintzat. Istripuak bai. Errusian ere bonbardaketarik ez genuen izan. Bizitza aldatu zidan gerrak. 20 urte etxetik kanpora pasatu behar izan nuen, adinik onenean.

OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta Gerra Zibilari buruzko sail honetako artikulua gure webgunean ikus ditzakezue.

GOSEA

«Bilbon gosea pasatu izanaz ez naiz gogoratzen; Saratov-en garia mastekatzu entretentzen ginen»

GURASOAK

«Harreman oso gutxi izan genuen; urte asko ezer jakin gabe egon ginen; gero gutunak idazten hasi ginen»

ERRUSIERA

«Hasieratik ikasi genuen, gramatika eta literatura, konturatu gabe; badakizu, umeak ginen eta...»

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 19a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzena

13

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Kultur Astearen, Autodeterminazioaren Aldeko Eguna: 12:00etan, herriko plazan, argazki erraldoia aterako dute; 13:30ean, kantu bazkaria: babarrunak, azak, txorizoa, odolkia, saiheza, postrea eta kafea, herriko frontoian.
Amasa. San Martin jaien baitan, 11:00etan Amasako XIV. mendiatloia; 18:00etan, XVII. Intxorren aldatzea eta Martina Sorginari agur.
Berastegi. Kultur Astearen baitan, Gazta lehiaketa eta Berastegiko produktu eta eskulanak eskuragai izango dira 11:00etan frontoian. 12:30ean, Gazta, postu eta argazki rallyko irabazleen sari banaketa egingo dute, frontoian. 18:00etan, lehiaketan parte hartu duten gazten dastaketa egingo da talo, ardoa eta sagardoarekin, pilotalekuan.
Ikaztegieta. XVI. Kros herriko klasikoa, 11:00etatik aurrera.
Berastegi. Eneko Aritzaren lagunen *Sua* filmaren grabaketa egingo da Berastegiko borda batean. Horretarako, 11:00etan elkartuko dira interesaturik dauden guztiak antolatzaileekin batera handik Berastegira joateko.
Orexa. Orexatik Uhitzirako mendi ibilaldia izango da ondoren, bazkaria izango da Uhitziko Herri Elkartean. Interesatuak, 09:30ean elkartuko dira plazan.
Tolosa. Etzi, 21:00etan, Usabal kiroldegian, triatloi taldeak denboraldi berriari hasiera emateko bilera egingo du.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa Ollarrea, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112
Tolosa Ollarrea, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepikapena)

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eta atera dadila... Zerkausian

TOLOSA ▶ Igarondo Tolosako Merkatarien Elkartek antolatuta, Ipuin kontalaria izan zen atzokoan Zerkausiko behirazko eremuan



Haur guztiak sartzen ez zirelako, bigarren emanaldi bat egin behar izan zuten. E. EZEIZA


ESTI EZEIZA

Adi-adi, harreta handiz entzun zituzen umetxoek atzokoan ipuin kontalariaen istorioak. Eta esan beharra dago, txikitxo geratu zela Zerkausiko beirazko eremua, hori erakusten zuten. «gelatxoaren» kanpoaldean horman belarria jarrita zutenen aurpegiek. Horregatik, hasiera batean saio bakarra izan behar bazuen ere, azkenean beste bat ere egitea erabaki zuten antolatzaileek, lehenengoan ezin, eta entzuteko gogoekin geratu zirentzat.


Atzoko Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak antolatutako animazio saioetako bat izan zen. Era berean, hemendik aurrera, larunbat arratsalde gehiagotan ere izango dira horrelako jardunaldiak, jakitera eman dutenez.

4 eta 8 urte bitarteko haur-entzatat zuzendutako emanaldia izan zen Zerkausikoa. Leo Lionniren Urdin Txikia Hori Txikia izeneko ipuina entzun, eta aldi berean, kontaketan parte hartu ahal izan zuten gaztetxoek. Hau, Mihise bat alboan zuela egin zuen ipuin kontalariaik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Oihan Arrospeide Uzkudun
(Leaburu). Gaur 4 urte. Ilargiraino ta buelttan maite zaitzugu zure ondokoek.



URTE ASKOAN
Haritz Errazkin Zubillaga
(Ibarra). Gaur 4 urte. Ondo pasa eta muxu handi bat denon partetik.



URTE ASKOAN OIER!

Topa zuzatik eta Euskal Herriarengatik muxu pottolo ta iraultzaileak, Haimar, Urtzi ta familiak! Irabaziko diau!!

Mesedez,
ekarri argazkia
bi egun
lehenago.
Mila esker.

hitza
agurren
tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...